



# ENARAREN AMETSAK

## Erreportajearen bukaera



Hauek nerbioak, hauek! Erreportajea amaitzen ari gara. Azken zatia —eta, agian, garrantzitsuena— falta zaigu. Sar zaitetzte **4. fasera**, eta bidali zuen proposamenak eta erreportajearen ondorioak.

Gogo handia dut bidaltzen duzuen ikusteko. Oso erreportaje ona izango da, eta oso berezia niretzat, benetan!

Hurrengora arte,  
-)-  
César Cesarino

**Kaixo, hola, ola, olá, ciao, hi!**

## 3. ZIKLOA

# Fasea 1: Has gaitzen

## CÉSAR CESARINO:

Kaixo, “Munduak lotzen” programako lagunok. Zer moduz zaudete? Nire burua aurkeztu behar dizuet: Cesar Cesarino dut izena, eta Malta uhartedian dagoen Gozo irlako egunkari txiki bateko argazki-kazetaria naiz. Egunkariaren izena “Malta gaur” da. Mundu osoan irudi ederrak eta, aldi berean, hunkigarriak aurkitzeko dudan zaletasunak eraginda hasi nintzen arlo honetan lanean.

Urte batzuk eman nituen nire kamera hartu eta zenbait lekutara bidaiatzen, Bosnia-Herzegovina, Txina, Kanada, India, Aljeria, Brasil, Mexiko, Finlandia, Mongolia, Portugalo, Angola... eta beste hainbat herrialdeetako pertsoneri argazkiak ateraz, eta beti ere bertako jendearekin hitz egiten eta haien bizimodua nolakoa den jakiten saiatuz.

Nire bidaiak pentsarazi zidaten zeinen garrantzitsuak diren irudiak gure eguneroko bizitzan, bizi garen mundua irudiz betea baitago: argazkiak, Internet, telebista, zinema.... Horien guztien bidez, ezagutzen ez ditugun munduko herrialdeetako pertsonak eta lekuak nolakoak diren jakin dezakegu

## **Esaldi famatu batek honela dio: “Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du”. Ados zaudete nirekin?**

Izugarri gustatzen zait nire lana. Oraintxe bertan, “Malta gaur” egunkarian egunero argitaratzen ditugun albisteei irudiak jartzean datza lan hori.

Jada esan dizuedan bezala, nire zaletasun handiena da bidaiatu dudan munduko leku guztietako argazkiak biltzea. Zuek bidaiatzen duzue? Niri asko gustatzen zait, beste leku, ohitura, pertsona... batzuk ezagutzeko aukera ematen baitit.

Nire iritziz, pertsona guztiok berdinak gara gizaki garen aldetik, baina uste dut, baita ere, munduko leku bakoitzean gauzak modu batean egiten direla eta guk, gure aldetik, maitasuna eta begirunea zor diegula. Jantzeko modua, eskualde bateko janari tipikoak, musika egiteko erabiltzen diren tresnak... dira desberdintasunik nabarmenenak. Baina badira begi bistakoak ez diren desberdintasun batzuk ere, eta beste kultura bateko pertsonekin bizi ondoren soilik antzeman daitezke.

Bestalde, kultura bat oso desberdina dela irudituagatik ere, beti aurkitzen diot antzekotasunen bat. Bisitatzen ditudan lekuetako argazkiak ateratzea gustatzen zait; horrela, ezagutu ditudan eta beren kultura nahiz desberdintasun eta antzekotasun horiek ezagutzeko aukera eman didaten pertsona horien oroimen polita gordetzen dut.

Egunotan, “Malta gaur” egunkarian, migrazioari eta garapenari buruzko erreportaje bat ari gara prestatzen. Datorren hilerako eginda egon behar du.

Nire iturriek jakinarazi didatenez, “Munduak lotzen” programak herrialde askotako neska-mutilen eta gazteen sare bat du. Horiek “Enaren ametsak” izeneko jarduera batean parte hartzen dute, eta, jarduera hori erreportajeak lantzen duen gaiarekin lotuta dagoenez, pentsatu dut agian zuek lagundu diezadakezuela. Zer iruditzen zaizue?

### CÉSAR CESARINO:

Hasteko, beste herrialde batera migratzea erabaki duten lau pertsonen testigantzak aurkeztu behar dizkizuet. Pertsona horiek izango dira nire erreportajearen protagonista.

Nadia, Idi, Daniela eta Julio izena dute. Hasteko, zein arrazoirengatik migratu duten laburtu behar dut esaldi batekin. Gero, aurpegia jarriko diogu haietako bakoitzari. Lagunduko didazue, beraz

### Nadia

Nadia Marokokoa da, eta Tetuango hirian bizi da. Asko gustatzen zaio bere hiria, baina ez du lanik aurkitzen, eta lana bilatzera Espainiara joatea ari da pentsatzen; horrek oso triste sentiarazten du. Nadia gurasoekin eta bere anai-arrebetatik laurekin bizi da. Diru-arazo larriak dituzte, eta, bera adinez nagusia denez, haiei laguntzeko zerbait egin behar duela pentsatzen du.

Espainiara joan diren pertsona batzuekin hitz egin du, eta esan diote aukerarik azkarrena Gibraltargo itsasartearen patera edo kaiuko batean zeharkatzea dela. Diru asko kostatzen da eta oso arriskutsua da, baina egun gutxitan har daitekeen erabakia da.

Nadiak bere gurasoekin eta familiako kide batzuekin hitz egin du bidaiarako behar duen dirua biltzeko. Beldurrak jota dago, baina ez du bidaiatzea beste aukerarik ikusten.

Lehenik, esaldi baten edo biren bidez laburtu behar dituzue gure lau pertsonaiek migratzeko izan zituzten arrazoiak.

### Idi

Idi Burundin jaio zen. Burundi Afrika Erdiko herrialde txiki-txiki bat da. 1993 eta 1999 urteen artean, talde etnikoen arteko biolentziak (adibidez, hutuen eta tutsien arteko biolentziak) ehunka mila burundiar errefuxiatu eragin zituen.

Alboko herrialdera joan ziren: Tanzaniara.

Ordutik, Mtabila izeneko errefuxiatu-gunean bizi da Idi gurasoekin eta bere anai-arrebetatik seirekin. Hango bizi-baldintzak oso gogorrak dira. Ez dute ur-korronterik, eta egunero ibaira joan behar izaten dute behar duten uraren bila. Tanzaniako gobernuak eskaini dizkien barrakoi batzuetan bizi dira. Egunez bero izugarria egoten da, eta gauez, berriz, hotz handia.

Berak Burundira itzultzea amesten du, baina bere herrialdeak bizi duen biolentzia-egoera dela eta ezin dira hara itzuli. Ez dakite zenbat denbora igaro beharko duten Tanzanian errefuxiatu gisa bizitzen

Lehenik, esaldi baten edo biren bidez laburtu behar dituzue gure lau pertsonaiek migratzeko izan zituzten arrazoiak.

## ARRAZOI HAUENGATIK MIGRATU ZUEN:

### Daniela

Daniela unibertsitateko ikasle italiar bat da. Napolin bizi da, familiarekin. Bere gurasoek Gobernu Kanpoko Erakunde batentzat lan egiten dute El Salvador-en, genero-berdintasunari buruzko proiektu batean. Duela gutxi hara bidaiatu eta han bizitzea proposatu diete, behin-behingo nahi badute, baina nahi izanez gero betiko geratzeko aukerarekin.

Asko pentsatu ondoren, uste dute aukera ona izango litzatekeela beste herrialde batean bizitzearen esperientzia izateko: herrialde hori ezagutu ahal izango lukete, espainola ikasi, eta beraiena ez den gizarte batean barnertzeko ahalegina egin.

Daniela asko erakartzen du Latinoamerikako bizitzak, hari buruz gauza eder asko kontatu dizkiote eta. Dena desberdina, berria, handia, ederra... iruditzen zaio, eta horrek liluratu egiten du.

Lehenik, esaldi baten edo biren bidez laburtu behar dituzue gure lau pertsonaiek migratzeko izan zituzten arrazoiak.

## ARRAZOI HAUENGATIK MIGRATU ZUEN:

### Julio

Julio perutarra da, eta Amantani irlan bizi da, Titikaka lakutik oso gertu. Egunero maitasunez begiratzen dio bere etxetik laku izugarriari. Zoritxarrez, lakua kutsatuta dago pertsonen jardueraren eraginez, eta horrek tristura eragiten dio. Hala ere, Andeetako kondorak egunero pasatzen dira lakuaren gainetik hegan, mendi garaienatarako bidean.

Irudi hori zoragarria da, baina familian duen egoera gero eta zailagoa da, edateko ur gutxi dutelako.

Entzun du bere gurasoek Limara joan nahi dutela lana bilatzera. Eta tristura handia ematen dio hirian bizitzera joateko mendiak utzi beharko dituela pentsatzeak. Haiek bezala, leku horretako familia askok hirietara emigratu beharra izan dute lana aurkitzeko.

Lehenik, esaldi baten edo biren bidez laburtu behar dituzue gure lau pertsonaiek migratzeko izan zituzten arrazoiak.

## ARRAZOI HAUENGATIK MIGRATU ZUEN:

### CÉSAR CESARINO:

Eta orain, zer iruditzen zaizue gure testigantzei aurpegia jartzen badiegu? Hemen dituzue nire argazkietako batzuk, Nadia, Idi, Daniela eta Julio nor izan

daitezkeen erabaki dezazuen. Aukera ezazue zuen ustez zein egokitzen diren pertsonaia bakoitzaren jatorrira eta egoerara.

Datorren astean beste taldeen lana ikusi ahal izango dugu. Argazki berak aukeratu ote dituzte?

Beraz, hemendik astebetera egongo gara elkarrekin berriro. Ordura arte!

Hauek dira aukeratu dituzten argazkiak:

Nadia Idi Daniela Julio



## Fasea 2: Irudiek adierazten digutena

### CÉSAR CESARINO:

Agur bat guztioi, eta eskerrik asko erreportajea egiten laguntzeagatik!  
Jada badakigu zein arrazoik bultzatuta aldatu duen beren bizilekua gure testigantzetako pertsonaia bakoitzak. Irakurri nahi dituzue beste taldeek idatzi dituztenak?

### CÉSAR CESARINO ■

Zuen hausnarketek gauza askori buruz pentsarazi didate. Konturatu naiz arrazoi asko daudela beste leku batera migratzeko, baina gehienak esaldi bakar batean laburtu daitezkeela: bizitza duina izateko baldintzak falta izatea eta herrialde batzuen eta beste batzuen artean dagoen desberdintasun izugarria. Bizi garen munduan bidegabea den sistema batek agintzen du, eta sistema horrek kanpoan uzten du hiritarren zati bat. Nazioarteko migrazioak, gure munduan gertatzen diren migrazio guztien artean gutxiengoa baitira, desberdintasun horren emaitza dira. NBERen arabera, **191 milioi inguru pertsona daude migrazio-prozesuan.**

Horietako batzuen kasuan —adibidez, **Nadiaren** kasuan—, Marokon aurkitu ezin dituen lan-aukerak izateko eta familia mantentzen laguntzeko. Bidaia arriskutsua da, baina bere eta familiaren egoera jasangaitza da.

Beste batzuen kasuan —adibidez, **Idiren** kasuan—, Tanzaniara bidaiatzeak bakean bizi ahal izatea esan nahi du, haren herrialdeak gatazka armatua konpontzea lortzen duen arte. Errefuxiatu-guneko bizitza gogorra da, baina ezinezkoa da Burundira itzultzea. **Danielarentzat** eta antzeko egoeran dauden pertsonentzat, bidaiatzeak esan nahi du beren gurasoen lan-aukerak aprobeztatzea, aukera berriak izateko eta elkarbizitza eta hazkuntza pertsonaleko esperientzia berriak aurkitzeko.

**Julioarentzat** mendia uztea kolpe gogorra izango da, baina, era berean, hiriko bizitza ezagutzeko aukera emango dio, eta gurasoek landako lanarekin baino diru gehiago ira

### César Cesarino

**Izena:** César Cesarino.

**Adina:** 35 urte.

**Sorlekua:** Gozo irla, Malta.

**Familia:** 2 anai-arreba ditu, Elsa eta Andrew, 32 eta 30 urtekoak.

**Kirolak:** uretako kirolak izugarri gustatzen zaizkio, eta duela urte askotatik piraguismoan ibiltzen da.

**Lanbidea:** *freelance* ari den argazki-kazetaria, “Malta gaur” bazteko aukera izango dute. egunkariarentzat lan egiten du.



**Bisitatu dituen herrialdeak:**  
Espainia, Portugal, Italia, Dominikar Errepublikak, Tanzania, Malta, Txile, Kenya, Argentina, Kolonbia, Brasil, Cabo Verde, Ekuador, Honduras, Maroko, Mexiko, Peru, India, Austria, Bosnia-Herzegovina, Angola, Kuba, Botswana, Errusia, Japonia, Lituania, Danimarka eta Paraguai.

Eta orain gure benetako testigantzen aurpegia erakutsi behar dizuet.



# CÉSAR CESARINO:

Zer iruditzen zaizue?

Zuek uste zenuten bezalakoak dira?

Zerk harritu zaituzte edo eman dizue atentzioa?

Zuen iritziak **foroarekin** konpartitzera gonbidatzen zaituztet. Ziur oso interesgarria izango dela!

Asko gustatuko litzaidake, baita ere, zuen ikaskideekin hitz egingo bazenute hauei buruz: Zer nolakoa izango da horietako bakoitzaren bizitza hemendik 5 urtera? Non egongo dira? Zer uste duzue gertatuko zaiela urte horietan?

Uste duzue Nadiak bere familia mantendu ahal izango duela?

Uste duzue Idik noizbait itzuli ahal izango duela bere herrialdera?

Uste duzue Danielari gustatuko zaiola bere hiri berria?

Uste duzue Julio zorientsu izango dela hirian?



EZ DU LORTUKO.ESPAÑIAKO EKONOMIA EZ DAGO ONDO ETA LANA AURKITZEKO ARASOAK EDUKIKO DITU

Gure uztez Nadia itsasarte pasatzerakoan hilko da.Eta itzasoan geldituko da betirako. Eta pasatzen dauenean ez bada iltzen ondo biziko da bere familiarekin.

Hemendik 5 urtetara Nadiak bere familia lagunduko du

Idi ez da bueltatuko pakea lortzea zaila delako.

Uste dugu denbora gehiago beharko duela bere herrira itzultzeko.

Idi, Tanzaniara helduko da ondo eta bere familiarekin positiboki biziko da.



Daniela nahita joan da, ondo egongo da.

Daniela, Hego Amerikan lana aurkituko du, han geratuko da eta bere gurazoekin poziko da

Julio, hirian lagun beriak egingo ditu, ondo moldatuko da,eta karrera bat aterako du.

Julio nahiz eta faltan somatu lakua, moldatuko da.



## Fasea 3: Bisita interesgarri bat

### CÉSAR CESARINO:

Kaixo guztioi:

Zer moduz zaudete? Irakurri nahi duzue nola irudikatu duten beste taldekoek Nadia, Idi, Daniela eta Julioren bizitza hemendik 5 urtera? Oso interesgarria iruditzen zait esan duzuen guztia, eta hori erreportajea sartzea proposatzen dut. Baina gehiegi ez luzatzearren, istorioaren jarraipen bakar bat aukeratu beharko genuke bakoitzarentzat. **Bozkatuko al duzue proposamen guztien artean gehien gustatu zaizuenena?**

### CÉSAR CESARINO:

Orain arte nire bidaia guztietan ezagutu ditudan pertsoneri buruz ikertu dugu, baina ziur nago zuen artean ere egongo direla beste leku batzuetara migratu duten pertsonen istorioak: zuen familiak, zuen bizilagunek, gelako ikaskideek edo zuek ere zuen esperientziei buruz kontatzeko gauzak izan ditzakezue.

Pentsatu dut herrialde desberdin askotakoak izateari etekina atera behar diogula. Talde bakoitzak bere hirian edo herrian ikertzen badu, erreportajerako informazio eguneratu eta fidagarri ugari lortuko dugu.

Horregatik, migrazio-esperientzia bat bizi izan duen eta esperientzia hori taldearekin konpartitu nahi duen pertsona bat aukeratzeko proposatzen dizuet. Egokia litzateke pertsona hori eskola duzuen egun batean etortzea, eta berari elkarrizketa bat egin ahal izatea. Elkarrizketa horrek balioko dizue haren bizitzako istorioa idazteko. Oso ariketa interesgarria da, ezta? Nahikoa lan badugu; beraz, antolatu egin beharko ginbateke:

1. Bisita hori baino lehen, denbora bat hartu beharko zenukete galdetegi bat egiteko, zuen irakaslearekin batera, guztion artean erabaki ahal izateko egin nahi dizkiozuen galderak. Gustatuko litzaidake honako galdera hau sartuko bazenute: nola irudikatzen duen bere bizitza 5 urte barru.
2. Gero, prestaturiko elkarrizketa aukeratu duzuen pertsonari egiteko unea izango da. Kamera bat baduzue eta elkarrizketatu duzuen pertsonak baimena ematen badizue, argazki bat atera ahal izango diozue erreportajea hornitzeko!
3. Eta, azkenik, kontakizun moduan idatzi haren **bizitzako istorioa**, gainerako taldeekin plataforman konpartitzeko. Atal bat gehitu ahal izango diozue, pertsona horrek bere burua 5 urte barru nola irudikatzen duen adieraziz.

Prest zaudete elkarrizketarako?

Aurrera bada, eta zorte on!

Datorren astean gure elkarrizketen emaitzak ikusi ahal izango ditugu.

Laster arte!

## Bizitza-historiak

NNNNN Goizean , gelakide baten ama etorri da eta zergatik emigratu zuen azaldu digu: Bera Marokon bizi zen bere bi umeekin. Ez zuten oso bizitza ona eta hona etortzea erabaki zuten. Oso gogorra izan zen. Lehenengo autobusez joan zen, gero itsasontzi batean eta ondoren, autobusez jarraitu zuen Gasteizeraino. Lehenengo urtea oso gogorra izan zen, baina gero gauzak hobetu egin ziren. Berak ez zuen pentsatzen hain zaila izango zenik, baina konfunditu egin zen. Kultura eta hango festak ere egiten dituzte Arrasaten. Ramadan egiteko neskek hilekoa euki behar dute eta mutilei ahotsa aldatu behar zaie. Txikiak badira hilabete horretako hogeitaseian aukera dute egun berezia delako eta nagusia bazara hilabetea iraun behar duzu jan eta edan gabe, eta eguzkia izkutatzen denean jan eta edan dezakezu. Txerria ez dute jaten. Neskek zapia eramaten dute buruan eta gizon zaharrenak turbantea . Berak ez zuen hizkuntza ezagutzen, baina orain gaztelania hobeto ezagutzen du; euskara piskatxo bat ere badaki. Hemendik 5 urtera nola ikusten duen bere burua galdetu diogu .NNNNNk esan digu hemen geratuko dela, euskera ikasiko duela eta uztailean egin dituen ikasketak gaitutuko dituela ; dirua irabaziko duela auxiliar lanetan eta bere balbintzak hobetuko dire



XXXXXX du izena.Ourensetik etorri zen orain dela 8 urte. Vide herrian bizi zen aitaren familiarekin. Han zeuden: Aita, ama,arreba, amona, osaba-izebak. Gurasoak banandu egin ziren. Ama, bere familiarengana etorri zen,hau da,Arrasatera bi umerekin. Aita ez zen Galizian gelditu. Bere seme alabarekin egoteko aukera gehiago izateko Aretxabaletara etorri zen. Nahiz eta Euskal Herrian bizi, sarritan Galiziara joaten da. Bai hemen bai han oso gustora egoten da

En nuestra clase hemos pensado que vamos a aprovechar que tenemos varias personas que viven fuera de su país para que nos cuenten su historia. Entre todos esto es lo que hemos redactado. YYYYYY: nació en china hace 10 años, vino a Mondragón cuando tenía dos. Una ley de China es que si tienes dos hijos uno se iba en adopción y el otro se quedaba en la familia. Itsaso tiene muchas ganas de volver a China. A YYYYYY la dieron en adopción y por eso la familia que tiene ahora la fue a adoptar. Y ahora está muy contenta con su nueva familia. Creemos que dentro de cinco años estará en Mondragón. Según YYYYYYYY el paisaje de China es muy bonito, verde y grande. Lo que mas le gusta es el palacio prohibido de China.

KKKKK: tiene 10 años, nació en Pereira (Colombia) y ahora vive en Arrasate-Mondragón (Guipúzcoa). Emigró por que su familia no tenía trabajo allí y encontraron trabajo en Mondragón, aunque en su país estaba bien y echa de menos a su familia. Su país es bonito y tiene paisajes, lagos y ríos muy bonitos. Y tienen muchas fiestas como: Halloween (El día de los brujitos), San José, Santa Maria y Santander de Quilichao. Dentro de 5 años piensa que estará en Pereira (Colombia).

ZZZZZZ: Tiene 11 años vivía en Puente Lurin, Lima (Perú) con su familia pero su madre no tenía trabajo y su tía le trajo a Guipúzcoa . A ZZZZZZ le encantaba su país, el paisaje, y sobre todo las fiestas como Carnavales, Halloween y muchas otras y lo que mas le gustaba era jugar con sus primos. Tenia mucha pena y también alegría por que iba a ver a su madre. Dentro de cinco años se ve con toda su familia viviendo en Arrasate

EEEEEE: Nací en Pereira (Colombia). Luego vine con un año a Eibar (Guipúzcoa). Dentro de cinco años creo que estaré con mi familia en Pereira. Pereira es bonito lo echo de menos, el paisaje es hermoso. Vine aquí con un año porque mi madre quería conseguir un trabajo para conseguir dinero. Ahora tengo 10 años, y vivo en Arrasate-Mondragón (Guipúzcoa). Me siento bien en Arrasate-Mondragón.

## Fasea 5: Ondorioak

### **CÉSAR CESARINO:**

Kaixo, berriro, neska-mutilok:

Gutako inork ez du aukeratu non jaio, ezta? Eta ikusi dugun bezala, desberdintasun ugari dituen mundu honetan, jaio garen herrialdeak baldintzatzen du zein izango den gure bizitzako egoera... Gustatuko litzaidake pentsatzea laster aldatuko dela hori, eta guztiok izango dugula bizitza-baldintza duinak izateko eskubidea, edozein dela ere gure sorlekua. Oraingoz, eta testigantzetan ikusi dugun bezala, pertsona askok hartzen dute bizitza hobearen bila migratzeko erabakia. Eta horretarako eskubidea guztiok izan behar genuke, ezta?

Azkenik, eta zuei guztioi esker, erreportajea osatu ahal izan dugu, eta modu bikainean gainera. Ikusi nahi duzue? Hemen duzue!